

Kurtso berri bat hasi da, baina badugu oraindik gainditu gabeko asignatura bat: Zaborren errausketa.

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen koordinatortik agerian utzi dugu etxeko hondakinen kudeaketan badagoela sistema jasangarriago bat, ekonomikoki merkeago eta gure osasuna zein ingurugiroarekin errespetutsuagoa, eta batez ere aspalditik martxan ari dena. Oinarrian, zabor organikoaren gaikako bilketa ere eta bere ondorengo konpostatzean datza, bereziki atez ateko bilketarekin. Gipuzkoako gizarteak, gainera, errausketa erabiltzen duen hondakinen kudeaketari behin eta berriz ezezko borobila eman dio.

Baina, Gipuzkoako Diputazioaren esku, eta bereziki Donostiako Udalaren laguntzarekin, Odon Elorzaren ezinbesteko inplikazioarekin, zaborren deuseztatze toxikoa inposatu nahian jarraitzen dute, etorkizuneko kudeaketa arduratsu baten ordeiz. Makro-azpiegitura erraldoi, pozointsu eta garestia sortu nahi dute, krisirik jasaten ez duten enpresek diru publikoari hozkada latza emanez eta krisia jasaten dugunon bizi kalitatea kenduz eta pobretuz.

Politikari uholde bat dugu inposaketari eta arduragabekeriari eutsi nahian, gure osasunaren kaltean. Itsaso zakarra dugu.

Baina kurtso honetan gure trainerua osatuta dago erraustegiarik gabeko zaborren kudeaketa gauzatzen ari diren proiektuetaz, zaborren bilketa eta tratamendu egoki baterako autonomi mailako lege proposamenean, eta gizartea informatu eta berau entzuteko hitzaldi eta eztabaidetan.

Baina estropada hau irabazteko, batez ere, arraunlari onak behar ditugu. Eta hau herri mobilizazioak emango digu. Gu guztiok gara indarrez arraun egin beharko dugunok.

Saria dagoeneko irabazita dugu: Ez dute lortuko erraustegia inposatzea.

Horretarako, hurrengo estropada igandean dugu, irailak 14, 11:30tan Kontxako pasealekuko lehen arrapalan. Bertatik abiatuko gara giza katean, beste behin argi uzteko Gipuzkoar gizarteak ez duela zaborren erraustegiarik nahi.

